

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Carmen Garitaonandia Lizarralde

*Oñati, Gipuzkoa
(1928-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Bergarako Elorregi auzoko Elorregigoiti baserrian jaio zen 1928an. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Zabaldo baserrikoa. 14 anai-arrebatatik seigarrena izanda, oso bizimodu gogorra ezagutu izan du. 7 urte ingururekin hasi zen auzoko eskolan. 13 urterekin Segurara joan zen neskame okindegi batera. Handik Bergarako Ugarte baserrira joan zen neskame eta 17 urte zituela Oñatiko Murgia auzoko Biain baserrira. 21 urterekin auzo bereko Azkarreta baserrira ezkondu eta 8 seme-alaba izan zituen.

Zintak

ONA-025

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider
- **Data:**
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkarte

ONA-026

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider
- **Data:**
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkarte

ONA-060

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-17
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-061

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-17
- **Iraupena:** 40 min

- **Euskarria:** MiniDV

ONA-218

- **Proiektua:** Oñatiko Murgia auzoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altube Irizar, Fermin
- **Data:**
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Altube Irizar, Fermin

Pasarteak

1. Neskametzatik ezkontzara

- **Erref:** ONA-060/001
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Zortzi urtez egon zen neskame, Seguran lehenengo eta gero Bergaran. Azkarretara ezkondu zen. 13 urterekin jada labesua egiten zuen.</p>

Transkripzioa

- Ni argaltxua izan banitz, orduan etxian egongo nitzan, ta nik aman onduan denpora gutxi pasau dot [...]. Gero zortzi urte in nittun kriada, eta gero ezkondu, berriz. Desgraziadia. "Una desgraciada de mucho cuidao he sido yo."

- Nun egon ziñan kriada?

- Kriada egon nitzan zerien, Bergaran, Bergarako Maduran, Ugarte-ta, badakitzu Zubikua?

- Bai.

- Zubikuan frentian bestekaldian.

- Bai, Zubikuan parientiak dakot.

- Zubikuan klaro, Basili Aizkirriko alabia da, zan, hilgo zan honozkio. Bai, hilgo zan honozkio. Zeatik haren famelixia, harek be seme-alaba pillia eukan, eta segidu ortuan ibiltten zan ha be bedarrak etaraten, orduan ez euen orduan ez zerik, dana eskuz in bihar izaten zan. Makiñatxo bat lan inddako andratxua zan, haundixa ez, baiña...

- Oin uste dot Zubikuan ortuak eta batzuk kendu in (di)ttuela.

-(...)

- Eta gero etorri nitzan esklaba Azkarretara. Esklaba e? "Y muy esclava".

- Baiña esklaba ezkonketara edo ezkondu ta gero?

- Ezkondu eta gero esklaba, klaro. Aurretik domeketan behintzet librauten neben, gero ez euen domekarik ez ezebez. (...)

- Orduan kriada ziñanian domeketan ez zeuben itten lan?

- Domeketan jai eukitten geben bedarra ez beuen ta hori. Domekak jai izaten ziran; bedarra baldin baeuen ez, bedarretan in bihar zan, edo garixa euenian eta hori bai, bai. Nik pasau dot bizimodua hamendi-hamendi-hamendi, tarraz-tarraz-tarraz, honaiñotxe ailleau naiz, azkenian oso tarrastu. Nere seme-alabak esaten daue, "gure amari ez xanai iñok pasauko, honek baiño miserixa haundixagorik ez xon iñok be pasau!"

Bueno, neuriak nik pasau (di)ttut neuk, nere ahizpa batek-edo, esaten dost ahizpa batek, berak hamahiru urtekin indda dauela labesua; bueno, "ya zazpi aldiz entzun xonat bai eta ya ez xonat gehixau entzun bihar, e? Hamahiru urtekin ez hintzan hi kapaz zutik ibiltteko be", esan notsan, "gehixao ez xonat entzutia gura hori" esan notsan. Begiratu in nostan. Oso geixua izan zan ha txikiña, neskaitillatan. Hamalau-hamabost urtekin regla etorri xakonian orduentxe hasi zan ha, eta gaur andria nire aldian bixkorra eta gogorra dao gaiñera e? Baiña orduan? Eta ni beti izan naiz neskaitilla ederra, "qué pena".

- Orduan hamahiru urtekin ya labesua itten zeben?

- Bai, panaderixan egon nitzan ta, labesua itten geben egunero! Egunero itten zan labesua.

- Panaderixan?

- Bai, eta tremendako labesua itten ziran, Seguran egon nitzanian.

Horreatik dakot nik hizkuntzia pixka bat kanbixauta. Han egon nitzanian Segurakua mau-mau itten neben nik. Urte t'erdixan egon nitzan, eta euren moduan ikasi neben nik berba itten.

- Orduan leheningo Bergaran eta gero Seguran?

- Leheningo Seguran.

- A? Leheningo Seguran.

- Bai ta gero Bergaran. Eta gero hona etorri nitzan. Buf! Ez dot akordaitterik gura, kontu horreik akordaitten sartzen xat tremendako hotzikaria.

- A bai, e?

- Ni neskaitilla, nik zenbat negar in doten? Bueno! Ni izan banitza negarrakin ta galtzekua, aspaldi ahaztuta nenguen, eta bakia gaiñera. Hola bizittia tristia da gero umiak e? Umiak ama eta etxia bihar izaten daue. Ez dot esaten ondo bizittia baiña aman inguruan beste gauza bat da, e? Nik askotan esaten dostet nere umieri, pobriak izango giñan baiña ama hamentxe dakotzue zuek. Nik euki ez nebena. Nik ez dot euki amarik sekula. Txikitxua nintzala bai.

2. Bizikletaz eta astoz

- **Erref:** ONA-060/003
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Seguran ikasi zuen bizikletan ibiltzen. Behin, Zegaman ermandadeak banatutako behi okela zatia bizikletaz eramane zuen etxera. Ogiz betetako zakuak astoan hartu eta bezeroei banatzen zizkien.

Transkripzioa

- Eta esan dozu bizikletan ibiltten ikasteko ...

- Bizikletan ibiltteko [...] ze baten, baten bat egon bizikletia eukena, nik ez neukan baiña, eta bizikletan ikasten egoten ziñan etxian, kalia, kale nagusixan, "Mayor dieciseis", euan Seguran eta hantxe euan ta etorri xatan: "bizikletan nahi al dian ikastea", ta "bai", horixe bai, besterik ez. Hasi nitzan bizikletia eta etorri zan señoia, urten eben eta fan zan zerera, [...] (...)

- Eta ikasi zeben?

- Honbre ikasi nebela! Gero Zegaman handik denpora gutxira, Zegamara

joan nitzan, behi bat hermendadian-edo Seguran behi bat partiu euen eta eruan nittuan zortzi kilo okela, bizikletan hartu eta aide. Ni edozein gauzetara atrebiu naiz beti eta zenbat aldiz, ez xat ezer pasau, eta bueltan netorrela Seguran zerien plazatik behera erripia dau goittik behera, ez dakit egonda zauzen, ez?

- Pasadizuan bakarrik.

- Ba dau plazan, ta plazan hasten da erripia dau, eta umiak orduentxe urteten bostetan arratsaldian etorri nitzanian, frenua apurtu! Eta ze ingo ete da hemen? Ta "ni corta ni perezosa" hankia ipiñi eta zera joan nitzan, aiuntamientu onduan han bolalekua, ta han launadia euen ta hantxe geldittu neben bizikletia, hantxe. Pasau (di)ttut holako, holako larrialdixak asko e? Baiña bueno, ez xatan sekula ezebe pasau.

- Eta hori esan dozuna, ermandadeko behixa partiu zeuilla. Zer zan hori?

- Ba ermendadiak egoten ziren lehenao baserrixan, oin ez dao hamen be ez da ermandaderik oin. Baiña ermendadia izaten da ba baserritarrak edo kalian, kalian be jente asko euen behixak eukeiñak e? Eta bi anae ziren solteruak bixak ta ba nola behia kendu behar zuten, ta albaiteria egon zala eta ez ziotela esan jan zekela ta, ta gero jun ziren ta esan zion ba berak bazeukela Zegaman, orduan gose urtiak ziren, gerra ondoria eta esan osten: "ba nik enpleauko dizut nahi badezu", ta halaxe hil euen ta neskaillia bialdu Zegamara okelokin ta listo. Eta hantxe ez dakit zer, sekula egon barik nenguen Zegaman, ez kapitala dalako baiña, han plazara iristen zeranean, hantxe eskumara ez dakit zer jartzen du eta hantxe letreroa ta irakurten dakixena behintzet gutxienez, eta eruan nittuen, itxi okelia eta emun nostain zera, nola esaten xakon, kanikatxuakin ta zela izaten ziren?

- Rifia?

- Ez, erana izaten zan, Seguran itten ziren, kanikatxuakin ta klak zapaldu eta ...

- A, gaseosak?

- Gaseosak. Gaseosa botillia uste dot emun nostain, eta haxe eran eta martxa atzera. [...] eta ni faten nitzan egunero Mutiloara ogixakin, astuan lau zaku ogi hartu eta Mutiloara. Eta amandratxo bat, zikiña, ondiokk be gorroto dakot e? Ba kontauta eukitten ziren ogixak eta orduan bota nostan bronkia gure ahizpak, eta nik bape kulparik euki ez, eta itten nosta bestiak zakua bere aldera begira ipiñi eta mostradore azpira bat botaten eben. Baten in nostan bakarrik e? Persona dontsia, dontsia jaixo in nitzan ni e?

- Orduan bezeruak itten otsun ogixa ostu?

- Ogixa bat, bat hartu eta ra sartu. Eta orduan ogixak badakitzu ze balixo eben? Zazpi txakur haundi.

- Zazpi txakur haundi.

- "Setenta céntimos". Oingua ingo balitz horreik moduan. Latzak pasautakuak danak eukitten (di)ttugu goguan. Ni gauza polittak pasau banittu orduan ez xatan akordauko, baiña horreik zakudidia horreik emuten dotsuenian beti kentzen dotsue gogua. Halaxe, bat falta dezu hemen, ez dakit, ezin dotsut esan ta, gero hori izango balitza gaurkua esango notsan: "aber ikusi daigun aber zer dakotzun hor", sartu mostradure barrura eta han topauko notsan e? Hartu ta ra sartzan eben ta kajan baten ifintten eben han eta honek ekarri in bihar nostala. Tontak espabilatzeko ez da ona jente txarra. Ez horixe.

- Baiña umia zu ondiok, ezta?

- Bai, hamahiru urte. Oin bialdu egin eizu hamahiru urte, gure neskatilliak dako hamabost urte, gure billobiak, bialdu egin eizu ha, nora bialdu bihar dozu ha? Igual ez eben gurako e?

3. Karmen okina

- **Erref:** ONA-060/004
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>14 anai-arreba ziren. Eskolatik neskame lanetara berehala bidaltzen zituzten. Goizeko lauretan jaikitzen zen Seguran ogia egitera, eta gero ogia banatzen zuen, astoz. Umetan, eskolara joateko aukera gutxi izan zuen.</p>

Transkripzioa

- Eta han egon ziñanian lanian Seguran, bertan egoten ziñan?
- Bai, bai, bertan, bertan, kriada bertara joan nitzan, bertan egon nitzan. Bai, bai. Ziren, aman lehengusiña zan andria ta...
- Eta ze itten zenduen, ogixak in eta saldu ta dana?
- Bai, ogixak egin, gaur gabian igual goizeko lauretan edo jaiki bihar izaten zan, ordu bittan, lauretan edo hala, ezin jaiki, uste dot plazatik be entzungo zittuela diarrak, jaiki ta "ni corta ni perezosa" holaxe itten nittuan ogixak, ra-ra hasi nizan itten ta: "hartu biak batera! Igual igual ingo dezu eta!" Ene! Bueno, ya, nehikua dot, nehikua dot, zeatik hango kontuak ez akordatzia hobe da, ez akordatzia. Egin ogixak, gero zortzirak inguruan joan gora, apur bat garbittu, di-da, astua ipiñi, ipiñi astuan ogixak eta Mutiloara. Eta gero etorri ziran bi mutil, jittanuak emuten euein, [...] tremendako preguntiak itten nostain, eta ume makala nik ez nekixen ezebe orduan, artian ze jakingo neben, eskolatik, eskolatik urten, bete nittuan mariatzen hamabixan hamahiru urte, eta hogeta zortzixan mariatzen bertan, fuera! (...) Haraxe fan bihar dozu eta kitto. Nik esaten dot: "baiña zela leike hola?" Umiak hortarako, ez daue jaixo bihar umia hortarako, ez da jaixo in bihar, ni hamahiru urtekin, eta nere ahizpa zaharrena, maistrina fan zan, zazpi urtekin eskolan hasi eta zortzikin kriada. Baiña ikasten egon zan, zortzi urtekin e? Eta pentsau egizu, harek eskribitten eta politto ikasi eben. (...) Guk esaten geben, guk iñok ez xonau aprobau gu ze izango giñan, halako bapauk izan be, ze bapo? Zazpi urtekin eskolara edo seikin eskolara fan eta zortzi urtekin kriada bialketan dauenak, gurasuak ez dakit zer dan. Niri ez eizue esan hori normala danik e? Orduan holaxe izango zan baiña gure moduan iñor ez zan ibilli. Ni hamalau anai-arrebetakua naiz e? Neu seigarrena.
- Hamalau anai-arreba?
- Bai. Gogorra da e? Gogorra da. Umiak bihar dira, umiak bihar dira, baiña ze ...
- Danendako ez zan egongo etxian ezta?
- E?
- Danendako ez zala egongo.
- Bai baserrixan ogixa-ta egoten zan, baiña ogixa bakarrik ez daue bihar, e? Orduan ogixa ta gaztaiña ta patatia ta porru-patatia ta hori egoten ziran, eta esnia be bai, baserrixan esnia nehikua egoten zan, eta esniak be ez nontan itten onik, talua ta esnia, nik oin talua entzun bai ta nere billobak: "neri talua gustaitten xat amandria". "Bai gustaitten xatzu? Ba jan ume, neri ez xat gustaitten eta", "Ekarriko dotsut e?" "Ez, ez, neri ez ekarri talorik, ez ekarri neri". Usaiñak be higuña emuten dost neri, garratzu itten xatan neri, etxian jan talua eta esnia eta etxetik [...] mobiu ordukoxe garratza egindda eskolara, [...] eskolara garratzakin. Iñoiz joan izan nitzan

armozau barik, eta baten holaxe, orduan egun hartan armozau barik fan nitzan, ezer hartu barik, ez neben eukitten gogorik. Hamarrak edo gehixau izango ziran, hori-hori nitzan momentu batetik bestera, “qué te pasa Carmen?” esan nostan maestriak, maestria geukan, “no estás bien?”, “Me siento un poco cansada” esan notsan, “¿Te sientes cansada? No tienes buena cara. Tienes amarilla pero amarilla eh?” Begixak [...] besuak eta danak. Zelaikua euen han urrian, baserri bat oin zera, Tavesa dauen lekuan, baserri haundi bat, “acompañarle a ésta hasta Zelaikua” [...] han nunbaitten euen gure etxia, ta baten batek lagundu nostan haraiño ta joan nitzan etxera ta, aillau nitzan etxera ta, “ze pasau jan baiña ze pasau jan, oin be hola, ez dakit zer”, eta badakitzu ze erremedixo euen gure amak? Ze ete da ziharo pobriak izatia e? Ura egosi kazuela baten ta haretxekin garbittu nostan mosua, ur egosixakin. (...)

- Ur egosixakin mosua garbittu?

- Bai. Esaten horretxek osatuko ninduala, eta ugera, egon nitzan lau-bost bat egunian ugian. Harek ez eben beste erremedixorik hartu, berakatz saldia jango neben, esnia ez xaten gustaitten, normalian ez xaten gustaitten esnia, ondo nenguanian be. Holakotxiak banan-banan esango nittuke mordua esango nittuke, eta honeik ez dira inbentautakuak, honeik ez dira pelikulako kontua, e? Honeik dira “realidad”, nik pasautakuak.

- Holaxe bizi izan naiz ni, eta artian beti andra ederra.

4. Lapitzik ez eskolarako

- **Erref:** ONA-060/006
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:13:43. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

San Prudentzian hasi zen eskolan, baina lapitzik erosteko dirurik ere ez zuen. Sei bat urte eman zituen eskolan, baina orduan ez zen kurtsoen jarraipenik egiten, ezta gurasoak asko arduratu ere. Maistra euskalduna zuten baina eskolak erdaraz jaso behar izaten zituzten.

5. Etxera mela-mela

- **Erref:** ONA-060/007
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Euria zen egun batean, maistrak ez zion zira hartzen utzi eskolako lagun bati. Bustita ailegatu zen etxera eta aita haserre joan zitzaion maistrari. Bere auzoko bi urteko ume bat erre kara erori eta ito egin zen.

6. Segurako okinak

- **Erref:** ONA-060/009
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:22:58. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Senide baten etxean egon zen Seguran. Okinak ziren etxeokak, eta bai Karmenek eta baita bere anaia batek ere okindegian egin zuten lan beranduago.</p>

Transkripzioa

- Eta Segurara senideren baten etxera?
- Bai, aman primia zan andria, prima karnala amana, Alkorta.
- Eta ha zan panaderia?
- Bai, gizona zan panaderua, eta bera be bai, [...] gizona zan panaderua eta gero anaia eukan, ta gero anaia be ezkondu zan, nik alde in nebenian laister ezkondu zan, ta gero nere anaia be egon zan, beste nere anae ba be egon eta berak begixak zabaldu barik itten zittuan leheningo ogi illaria, tremendako zerak izaten ziren, barrak eta zakuzko ze bateaz ta rra, ipiñi hola ta gero rra ipiñi zeran biñan biñan danak, eta gero ezagutu itten euen, ba biñan-biñan ipiñittako zerak palak be oso diferentiak, baserriko palien moduan ez zien izaten, aldiko biñan ipintten ziren eta rra, bota labera ta labian gaiñera ez euen orduan jiratorixua han e? Geure moduko labia garbittu eta dana igual itten zan baiña [...] ta modukua ez, oin Aiastuin dakue jiratorixua.
- A, bai. Ez dot ikusi ondiok baiña ...
- Ez dozu ikusi? Bai, horreik itten dauen moduan, ta horreik jiratorixuan itten daue ta han erdi lan dau han, zeatik parera etorten xatzu erreten diranian tostau ahala zerien. Ta gero atzera ipinttia gura badozu, hortarako berotasuna euki bihar, baiña horreik atzekaldian bertan eukitten daue sua be, barruan ez baiña aldamenian. Han zan baserriko moduan "ya está" ogixa.
- Labia berotu egurra erreta.
- Bai, egurra erreta. Egurra batu itten eben bere anaiak, batzeko ta ni artian neskattillia nitzan artian labia batzeko [...] baiña ez, sekula ez dot iñ izan, labia batzekua ez, sekula be ez, ta gero anaiak itten eben, ta gero bertan ezkondu zan.

7. 14 seme-alaba

- **Erref:** ONA-060/011
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:28:54. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>14 ume izan eta gero, minbiziak eraman zuen Karmenen ama 57 urte zituenean.</p>

8. Etxeko andreak jarritako zigorra

- **Erref:** ONA-060/012
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:30:32. **Bukatu:** 00:34:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Igande batean etxera berandu joan eta etxeko andreak zigortu egin zuen. Ugazabak nola babestu zuen azaltzen digu Karmenek. Etxeko "señori" nahiko xelebrea omen zen.</p>

Transkripzioa

- Behin, jakiñien zaozai hori, gauza polittak be badakituzue behin, kastigauta neuen, aurreko domekan gabeko hamaiketan etxera fan nitzalako. Altos Hornosko jaittan eta handik bueltia biagia egoten zan etxera, oiñez joan ta etorri ta hamaikak jota, hamaikak laurdenak gutxiau eta zerien zubixan behera goiazan orduentxe eta neure lagun baten ahizpia, gaur dakozue ona! Danak billurra emuten, artien be billurra emuten! Eta artian hamaikak laurdenak gutxiau, hamaikak, etxera aillau nitzan hamaiketan. Señoria uge gaiñian jarritta, pazientziak hartu ezindda, "zer da baiña hau? Datorren domekan kastigauta, ez dakotzu iñora faterik" esan nostan. "Eskarrrik asko" nere artian, ixilik uhera. Hurrengo goizian lehenau llamadia, aide, "arriba", hurrengo domekia allau zan eta berak fan bihar Elosura, artian amandria, ama bizi eben, bera fan zan Elosura, ta klaro, etxeko lanak in nittun danak, goizian zazpiretako mezetara fan [...] Santa Mariñara, gero mezetatik etxera fan eta gero lanak in ta hori. Eta gero arratsaldian, aldamenian bertan euen [...], "bueno, badakin ze ingo doun?" Esan nostan. Eta, "zer?" "San Juanera jungo gaittun, San Juanen erromerixi jan ta". (...)

- Zer euen San Juanen?

- Erromerixia.

- A, erromerixia.

- (...) Bai, ta señoria etorriko zala ta ... "konponduko don señoriori!" Esan ta in. Umiai siestia eragin, garbittu dana, curioso ifiñi, dotore orraztu, merienda emun, gizona ta zera, ugazaba eta beren anaia, soltero euen, [...] hareik bixairi ifiñi nosten afarixa, afaldu, gixaua in nosten gaiñera, pentsau, haragixa gixautakua ifiñi nosten, hori goguan dakot, [...] euenian ontzixak jaso, fregaua in ta dana in [...] ifiñi neben freskuran eta bagoiaz San Juanera, mutikua lepuen hartuta. Gaur kotxian be ez nitzake ba fango, eta hara fan giñanian gaiñera planik be ez neuken. Fan gitzen eta klaro dana baserriko jentia, dana jente ezaguna, in gittuan bi edo hiru pieza dantza in gittuan. Atzera buelta in eta etxera, aillau naiz etxera eta, Zubikuan kanpuan geozenien buelta in gebenian, señoria jarritta, pazientziak hartu ezindda, handik segidan igarri notsan nerbiosa euen, "buena me espera" esan notsan, oin jua hari horra, esan notsan [...] eta, "ze ba?" Ze, "hik erantzun!" "Bai, sekula ez xonat erantzun eta oin ezingo naun hasi erantzuten, gaur gaiñera faltauta naujan" esan notsan. "Faltauta?" "Bai, etxian kastigauta naujan, igez in jonat". Aillau nitzan etxera: bueno, "neskatxa miserablea, edozein gauza itten dau honek! Ez dakit ze itten dau!" Baiña esan ta esan ta esan tau-tau-tau-tau! Ixilik, umia aldatu ta esan nostan ez dakit zer itteko. "Ze esan bihar jatzu?" Esan otsan ugezabak, "afarixa emun dosku, fregaua ta danak indda umia gobernau, umiari bueltia eragin eta artian zarataka zabitz?" Ta, "hurrengo jaixan

kastigauta!”, esan eben. “Egon zaittez ixilik mesedez! Ixilik egon zaittez, onddiok eguzkixa goixan”. Artian eguzkixa goixan euen, e? “Ekarri iturrira, edo fan iturrira eta ekarri ura”; iturririko ura eruan notsan. Eran eben basokada bat [...] Ha! Personia zan haura, “idiota”, [...] eta gero esaten eben bere semiak, ei zan gizajo bat, gazterik hil zan kanzerrakin eta nere anaiari esan otsan, gure ama txarra zuan e? Txarra zuan gure ama. Soldau neuela, [...] eta gaiñera zan eskrupulosia baiña a tope e? Alabiak esaten dost neri: “harek badakit zu zer, ze falta eben harek, zer, ama zer? Harek hola gonak jasotia eta epurdixa irakustia gizonairi”. Orduan Santa Agedara eruango euen baiña! Baiña pasauta euen, harek itten zittuen gauzak ez zittuen ingo iñok be, iñok be ez. Baten bat sillan jarritta egoten baldin bazan, ha sillia hotzittu arte ez zan jarriko. Banketa baten egoten bazan banketia garbittu ingo eben. Eskrupulosa baiña hola eskrupulosia baiña bilddurgarria zan e? Halaxe esan otsan: “afarixa emun dosku eta fregaua lan danak indda itxi (di)ttu eta umia goornau eta umiari bueltia emun eta zer esan bihar jatzu?” esan otsan eta, “fan iturrira eta ekarri ura” [...] baiña egin nontan ekiñaldixa esaten! Ha zan berba postura harena, “ era una señora, pero muy señora”.

9. Garia udaletxera

- **Erref:** ONA-060/014
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra denboran, gurdikada gari eraman behar izaten zuten baserritarrek udaletxera derrigortuta. Ez zitzaion bidezkoa iruditzen Karmeni gobernuaren jokabidea. Artile kilo bat gutxiago eramateagatik ere isuna ordaindu behar izaten zen. Gaur berriz, dohainik ere ez diete hartzen artilea.

Transkripzioa

- Baiña honeik dira edozein modutan gerra ostetxoko kontuak, ezta?
- Gerra ostekuak, klaro. Ez dakit ze fetxatan etorriko nitzan hona, ez dakot idearik be.
- Zenbat, hamalau urte?
- Hamazazpitik hamazortzira urte.
- Horixe,berrogeta bostian. Gordin-gordiñik onddiok gerra ostia.
- Bai, txarketan ondiok, zeatik garixa eta entregau eragitten euein; garixa, babia, patatia, dana entregau eragitten ebein, eta gero hemen aiuntamientuan azpixa ez dakit nun eukitten euen, garixa ez, patatia dana ustelketan jentiak ekusten eben, baserritarrari kendu eta gero han euki alperrik galtzen. Ez, geizki, geizki, gobiernua geizki portau zan orduan askokin, baserritarrakin "sobre todo". Itten euenari kentzen xakon pagau barik kentzen xakon, kalian dakonekotik ez dakonari emuten baotsain, tira, prezio bardiñian be tira, baiña ez, oso geizki egon zan orduan baserrixa be bai eta kalia be bai. Eta holaxe akordaiten naiz ni gurian zela negar itten geben. Garixa burdikada garixa eruaten zan kalera e? Ezin zebein kilo erdi gutxiao eruen. Azkarretan be entzunda dakot nik hori gizonak askotan esaten nontan, Donostiara zela fan ziren, kilo bat gutxiao bialdu ardi uliak, ulia be entregau in bihar izaten zan, hainbeste prezian ifiñi eta kitto. Eta

entregau in eta kilo bat falta, Donostiara fan ziren zera pagaittera, multia pagaittera.

- Kilo bat ardi-ulia.

- Kilo bat gutxiau eguelako. Baserritarrak beti egon dira zapalduta eta orduan be bai, e? Gero hasi zan ulia, gero bapebe jaso barik be egon da urte batzuk e? Eta oin ez dakit, gurian emuten dau baiña erregalau itten daue batzuetan, ez dakit ze itten dauen, nik ez dot kasorik itten. Baiña ni hor ibiltten nitzanian aillau zan ule kilua ehun pezeta ittera be, eta orduan ba politto, baiña berihelaxe atzera jausi zan eta oin ez dakit.

- Oin kendu alde faten da.

- Kendu alde, gure semia ibillitta dau erreten, kristonak in eta ezin berak, usain baten etorri eta ez dot akabo, bueno, trapero bateri emun edo zeozer, iñok be ez dau gura, ama, traperuak be ez daue gura, eruate alde be ez daue gura, (...) holakotxiak, baserrixan holakotxe gauzak datoz. Eta ni, bost seme-alaba neukan, ume txikiñak neukan artian, danak txikiñak, zaharrenak zortzi urte ez dakit euko zittuan, eta ba medikuan, gure gizona geixorik egon zan pleurakin, eta nehiko geizki gaiñera. Eta esan nostan, medikuak esan nostan, "Acción Católicakuak" horreik zela izaten dira horreik? Ibiltten diranak, zeozer partitten ibiltten diranak? "Acción Católicakuak" edo nunguak izaten dira horreik?

- Karitasekuak?

- Karitasekuak, eta Karitasen medikuak berba in eben e? "Como había en un caserío una mujer joven, con hijos pequeños y el marido enfermo". Atsoren batek jakin eben, errebañua geukala, "que éramos ricos" (...) Makilla bat eskuan ta kaltza-abarkak jantzi eta [...] aber ze emuten xauen ardixak. "La leche"! Zenbait holako desesperaziño pasau doten nik hemen? Eta eskua izana, sanua neuken orduan eta ez nostan inporta neri lana ittia. Esan notsan medikuari "saniauko da, nere gizona saniauko da?", ta berriz be baitta, ta berriz be baitta esan nostan: "beste batzuk saniatu izan dira eta hau be saniauko al da". Ez ekixen baiña saniauko zan, oso geizki egon zan da. Halaxe, saniau zan. Baiña ez e, seguruak, soziedadiak, istorixak, ez e iñok be lagundu barik, e?

10. Senarra gaixorik

- **Erref:** ONA-060/015
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:44:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Senarra gaixotu eta ospitalean hil zen. "Agrariaren" jokabidea ez zen bidezkoa izan. Egur asko jasandakoa dela dio Karmenek.

Transkripzioa

- Orduen gaiñera, Agraria beti pagau dogu ezkondu ondorien berihelaxe hasitta, baiña Agrariak be ez oskun abonaitten orduan. Operau zan, guntzurrunetik ebillen geizki, oso geizki, eta Vitorixan, medikuak, esan oskun Alvarez-edo orduan, gero Legazpira fan zana, eta berak eukala lagun bat oso ona zala, eta "tienes una operación" ez dakit zer esan otsan ta. "Pues por quedarme bien me importa, me importa un poco que me muera también", bueno Rafael, (...) eta famelixia amak jasoko dau, (...) eta holaxe

esan otsan medikuak ba baietz, eukala medikua oso ona eta harek ondo ifiñiko ebela eta halaxe fan zan Vittorixara, Vittorixan egon zan, eta esan otsan medikuak bat dakola "completamente" hondatuta, eta oingua ez e? Aspalditik dakola gaiñera. Eta bestia ez eukela ondo, ez eukela bestia oso ondo. Orduan esan oskun "no está del todo bien, kuntzurrun bakarra dakotzu, eta bera nehiko geizki". (...), azkenian haretxekin fan zan. Hirurogeta lau urtekin, artian zaharketako asti barik. Oso zahartu zan gaiñera han egon zan denporan, Vittorixan egon zan denporan oso zahartu zan. Nere ahizpia joaten zan ixa egunero joaten xakon ta, geure aittajuna emuten xon honek, esaten nostan, aittajuna emuten jon honek. Eta ze ingo xonat ba? Medikuen eskutan xaon, nik ze ingo xonat ba? Ez egidan holako tontokerixarik esan. Berak esaten nostan ba ez dakit ba ondo ittiatik edo geizki itteatik, baiña ez, nik ikusten neben berak letxe zela euan, ni joaten nitzan eta jentiak begiratu itten nostan, neri ez nostan inporta jentia begiratuatik, zeu egoten baldin bazara hobeto zaoz ta kitto.

- Ospittalian hil zan?

- Bai, orduan atzera etorri zan etxera eta esan nostan, hori zela da? Ez xat akordauko oin izena, hori da pagokua da gaiñera.

- Ospittala?

- Bai, eta Uribarriko segurua geukan orduan, beste seguru xeble bat egon zan, bueno harekin trankil egoteko modura geozela ta harek asko gehixau ez ekixen mediku harek be, gixajo harek, [...], ipiñi geben ba harekin, ta ez oskun Agrariak, Arabara joan gintzalako ez oskun abonau zeori, Agrariak.

- Arabara fan ziñailako?

- Arabara fan gintzalako, tokaitten zan Gipuzkoan bakarrik, (...). Nundik pasau naizen horreatik esaten dotzut ba nik. Horreik danok ikusten hasiko banitza ni jausi, jarritta egon ez ezkerro ni jausi ingo nitzake.

- Barre igual. barre.

- Ee?

- Barre. Horreik danok pasauta eta ondiok hementxe e?

- Ondiok hementxe nau bai, egixa da hori. Baiña nau paliza haundi bat hartuta, bizi danian palizan egon naiz ni, gaur egurra, bixar be egurra, etzi be egurra, holaxe egon naiz ni.

-Eta sekula ez dozu hola, egun polittik pasau?

-Ez, [...] San Juanera fan nitzan, hori badakitue, zazpi aldiz kontau dotsuet eta.

-Ez xatzu beste holakorik?

-Beste holakorik ezebez. Orduan kriadak ziren "muy estrictas", zeatik egon bihar ziñan "a lo que mandaban", eta gaur ez dakotzu jai, ba etxian egon bihar dozu eta kitto. Holaxe bizi izan naiz ni, holaxe bizi izan naiz ni ta

11. Ilunetan beldurrez

- **Erref:** ONA-060/016
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:44:13. **Bukatu:** 00:46:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Neskametzan igande arratsaldea izaten zuten libre, baina bederatzietarako etxera itzuli behar izaten ziren. Plazako dantzaldira joan eta ilunetan San Martinetik beldurrez igarotzen ziren etxera bidean.

Transkripzioa

- Eta esan dozu domekak libre eukitten zenduezela.
- Bai, domeka arratsaldiak libre, domeka arratsaldia izaten zan ba, bazkaldu ta fregaua in ta danak in ta ba, lauretan edo bostetan-edo urtengo giñan, eta neguan berriz gerotxuao, zazpiretan hasten zan musikia eta zortziretarako edo beratzitarako, beratzitarako ez baziñan faten etxera oso berandu izaten zan, “antes de tocar las nueve teneis que venir a casa”, Ugarte, Ugarteko señoia ona zuan bera, ona zuan bera!
- Baiña musikia plazan-edo?
- Plazan, plazan.
- Kalera bajatzen ziñazien?
- Bai, kalera, bai, Ugartetik kalera zenbat dau ba? Kilometro eta erdi? Bi kilometro ez dakit egongo diren. Kalera faten giñan eta hemendik be bai, hemendik be kalera juaten nitzan.
- Eta ze egoten zan, bandia?
- Bai, bandia, musikia egoten zan, dantza in ta. Azkenengo zera jotzen zan zortziretan, eta hura akabaitten zanian azkenengo burrundaria jo baiño lehen, polaiñas, e? Eta etortzen giñan pillia e? Eta gero San Martin oso peligrusua zan. Gure alabiak esaten dau, oin ez da ba egoten San Martiñen iñor! [...] Orduan San Martiñen egoten zan tremendako billurra. Hor beheko Jauregiko zerak, oin edadetuak dira oso, oso edadetuak dira, hareik esaten euein, San Martiñen tremendako peligrua, baten bat egon eta gero jarraitu ezker eta harrapo, aber zer pasauko zan. Gure neskatilliak esaten dau behin fan dala goizien, ordu txarretan, gabian berandu xamar, illunetan askotan ta; sekula ez jakon tokau ezebe. Jakiña, bilddurgarria izan dalako hau.
- Argixa be bai, ja han.
- San Martiñen badau?
- Oin bazter guztietan.
- Bazter guztietan. Azkarretan ez daue ipiñi ondiok, e zu? Aber nora begira zaozain. Ean zeozer aiuntamientuan.
- Baiña San Martiñen hemengua? Hemengo San Martiñen esaten dozu?
- Bai, bai, San Martiñen.
- Hor gaztetxia ifiñi daue. Hor, klaro ni horra gabaz ez naiz faten ta.
- A, ez zara faten gabaz. Ba ez fan, e? Bestela zeozer ingo dotsue. Ba ez dakit zer, baiño guretako bilddurra izaten zan San Martin, bilddurgarria.
- Baiña zeatik izaten zan bilddurgarria, illun zegolako-edo?
- Gizonen bat egoten zalako begira, baten bat, bai, ta ni pasaute nao illunez.

12. Ogi beltza egiten zuten

- **Erref:** ONA-060/019
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:49:42. **Bukatu:** 00:52:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Segurako okindegian ogi beltza egiten zuten, irin nahasiarekin. Villafrancatik bidaltzen zuten irina. Hirurogeita hamar zentimo kobratzen zuten ogiko eta hura izaten zen lau pertsonentzako egunerako anoa.

Transkripzioa

- Eta Seguran egon ziñazienien zer, edo esan dozu baserriko estiloko ogixa egiten zendueta, eta ogi klase diferenteak egitten zenduezen?
- Ez, ez, berdiña izaten zan.
- Dana berdiña.
- Dana berdiña, amak horixe esan nontan etxera joan nitzanian ogi giñan, ogixa in naben eta esan nontan: “Jesus, hau don ikasi duana?”, “Ze ikasi bihar neben ba?”. Jente dana goziak amorratzen ta, ogixak polittak itten? Ez polittik eta ez zatarrik, ogixak urtetzen zebe modukuak, eta jaikitta eta ondo erreta, ondo tostautak izaten ziren e? Hareitxeri be despreziua, ze, zertan ikasi bihar neben, [...] itten, neuk? Zerekin? Gero ogi zurixa itten hasi ziranian, orduan hori zan “el no va más”. Gero nere anaia egon zanian esaten eben, ya ke estraperlua gastau in zan, eta estraperluan ogi zurixa itten ei euen, gozian dirua alde danetatik etorten ziren hona eta oin ezelako dirurik, [...] hiru piso edo baeukein erositta ta, bueno, bueno, ze bihar eben ba harek? Harek be bihar eben dana, (...) ez dakit lau seme-alaba edo bost edo zera, eta andria.
- Eta ogixok , esan dozu ogi zurixa, eta ogi zurixaren aurretik zelakua izaten zan ba?
- Ha zera, baltza, oin integrala edo jaten daue ba?
- Bai.
- Horren modukua eta depende, batzutan zeraua, uruna nahastutakua bialketan baotzuen ezin zeken in, ta bialketan baotzuen zeori, gorrixa, uruna gorrixa izaten zan, halakua zaku bat eta bestia bi bialketan baotzun ba orduan gozua izaten zan ogia, oso gozua.
- Eta ze itten zeuen, zurixa eta bestia nahastu?
- Nahastu. Eta batzutan bialketan euen nahastuta, orduan (...) Preguntau itten nosta neri, [...], nere tio batek Bergarakuak esaten nontan: “ogi zurixa jango dozue zuek, eta nahastuta bialketan doskue”, ezin ziñuan esan orduan ogi zurixa guk jaten doula eta bestelakua emuten xaula bestieri diferentia. “Nahastua bialtzen doskue, tio, eta han ez dao ezer itterik, hau ezin dozu” (...) esaten otsan hala. Nahastuta bialtzen doskue asko, bialtzen daue nahastuta.
- Eta zuek nundik hartzen zeuen ba uruna?
- Villafrancatik ekarten euen.
- Baiña azokatik-edo?
- Ez, ez, ez. Nik ez dakit nundik erueten euen, ez doz interesau be itten gaiñera nundik erueten euen, baiña Villafrancatik erueten euen. Diar itten otsain: “que nos quedamos sin harina”, bueno, bihar holako ordurako euko dozue, horreik kontu horreik ...
- Gobimuak kentzen baotsan garixa zeari, baserritarrari, gero eurak partiuko euein, ezta?
- Klaro! Ez dakit ba nik ze itten euein, ez dakit nik nungo garixakin, ez dakit ze itten euen, hori ez dozu jakin be ingo gaiñera. Ba halaxe bialketan euen uruna ta itten ziren ogixok eta “setenta céntimos” balixo euen, holako ogi ze batzuk izaten ziren, [...] eta tercerako zera eukeindako harekin lau, lau personandako egunerako [...]
- Razionamentua?
- Bai, razionamientua, lau. Eta primerakua eukeiñak ba holakotxe ogitxuak.

13. Artzain lanetan

- Erref: ONA-060/021

- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:53:44. **Bukatu:** 00:56:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Hirurogeita hamar bat ardiko artaldea, hiruzpalau behi eta idi pareak zituzten Azkarretan. Idiak kendu zituztenean sei behi jarri zituzten. Gizonik ez etxean eta gorriak ikusi zituen Karmenek ardiak zaintzeko.</p>

14. Kalera saltzera

- **Erref:** ONA-060/022
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:56:43. **Bukatu:** 00:58:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Gazta eta ardi-esnea saltzen zuten kalean; ortuko gauzak etxerako izaten ziren.

15. Bizitza gogorra emakumeek baserrian

- **Erref:** ONA-060/023
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:58:56. **Bukatu:** 01:01:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

San Prudentzioko baserrian argindarra bazuten baina urik ez. Azkarretan beti ezagutu ditu argia eta ura. Duela 30 bat urte izan zuen lehenengo arropa garbigailua; ordura arte eskuz garbitzen zuen harraskan. Emakumeen bizia oso gogorra izan dela dio Karmenek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com